

Konplotak



ANUNTXI ARANA
ANTROPOLOGOA

Pil-pilean dabilta konplotak Ameriketarik honaino: COVID-19 planetako jendezionea murrizteko sortu dutela eta iraun lezaketena txerto zitalen bidez kontrolatu nahi dituztela. Horretan badu zerikusia azken berrogei urteko finantza-kapitalismoak. Sektorre publikoen pribatizazio eta ongizate sistemaren desmantelatze planak gora doaz ziztuan (kaxu! hemen auzolanean, diosku Zakilixutek) eta bereziki errudun dira agintariak, pandemiaren kudeaketan baino areago. Engainatuak eta desjabetuak sentitzen gara, eta orain hertsura ekarri digu gainera osasun krisiak. Hainbeste atsekaberi zentzu bilatzeko premiak, ausaz, denen atzean asmo kriminala sumatzera eramane du.

Aurrekari zaharrak ditu konplotismoak eta ezaguna da Aro Modernoan sorginen pertsekuzio izugarria ekarri zuena. Ustekeria batean finkatua zen: milioika malefikok sare bat bilbatua zutela deabruaren inguruan, haren agindua ezartzeko Elizaren eta Estatuaren aurka, gaitz eta eritasuna denetara zabaltzeko. Konplot horri gerlaz garaitu behar zitzaioela-eta, buru-belarri aritu ziren epaile eta juristak, erlijioso zein laiko: berek asmatutako lokamutsa sinetsi eta erabili zuten 50.000 bat lagun hiltzeko, gehienak emakumeak.

Gauza baten inexistentzia ezin da de-

mostratu eta konplotistak gezurtatzeko balio duen azalpenik ez da, beti eta denetarako daukate erantzuna, errugabetzeko saioa akusazio bihurtzen da: torturapean ere beren inozentzia aldarrikatzen zuten sorginek deabruaren laguntzari esker egiten zuten, hark emana baizik ez bailiteke halako kemenik eskura. Aitortzen zutenak baino errudunagoak ziren haiek, indarra izateko haurrak labean erre eta jan behar zituztelako. Lehen kristauei leporatu zieten krimen berdina egozten zieten sorginei -eta juduei-.

Inprimategiak demonologoen delirioa bezala, internetek konplot teoria hedatu duela esaten da. Alta, funtsezko diferentzia bada, ordukoan ahaltsuek zuten konplota pentsatu, oraingoan berriek daude susmopean. Haietarik asko jendediaren etsaiak izanki, onartezinaren aurreko erresistentzia eta izpiritu kritiko asko bada salaketan. Salbu salbuespenak. AEBetan Trumpen gurtzaile supremazistak dira salatzaileak, QAnon ingurukoak eta beste, eta pedofiloen aldratan satanikoak gobernatzen duela mundua predikatzen dute. Haurren defentsan, baina bada ezpada ere, pederastia frogatua den lekuetara ez dute begiratzten. Berdin du, deus ez aurkitzekotan, eliteek beren ustelkeria estaltzeko adina nagusigo duten seinalea baizik ez da. ●

Liburutegian



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Itxialdi erabatekoan eta oraingo askatasuna deitzen dugun honetan egin duan gauza produktibo bakarrenetakoa izan da liburuak ordenatzea. Konturatu naiz batzuk errepikatuta ditudala, eta ez dakidala nori oparitu, niri interesatzen zaizkidan gauzak beste batzuei intereseakoak ez zaizkielakoan. Beste batzuk faltan sumatzen ditut, eta neure buruari agindu diot etorkizunean eskuzabala izaten saiatuko naizela liburuak uzteko lanbidean izan ezik. Izan ere, liburuak gero eta gutxiago irauten dute liburu dendetan, eta ateratakoan erosi ez nituen liburuak

eskuratzea zaila izaten da maiz. Ez dakit zer egin hil direnek oparitu zizkidaten liburuekin. Ezin dut ahaztu noizbait norbaitek nigan pentsatu zuela liburu bat erosteko. Eta min ematen dit. Horiek herriko liburutegira eramane ditut, noizbait behartuz gero eskura izateko. Gaur egun lagunak ez ditudan horiek noizbait oparitutakoak bota egin ditut kontainer batera. Ez dut nahi inoiz bigarren eskuko dena batean aurkitu. Liburuekin ez bezala, dolu gabe galdu nahi nituzke lagunak. Eta haien arrastoak ezabatzen saiatzen naiz horregatik. ●